

Euskal AEko lehen sektorean %50 inguruk ditu IKT ekipamenduak 2016an

10 langile edo gehiagoko establezimenduetan IKTak gainerako jarduera sektoreetan bezalatsu

Euskal AEko lehen sektorean %50 inguruk ditu IKT ekipamenduak –Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia- 2016an, Eustaten arabera.

Lehen sektorea, halere, telefono mugikorrean izan ezik (%85,2) urruti dago gainerakoetatik IKTetan. Ordenagailu gutxiago (%53,1), posta elektronikoko gutxiago (%46,0), Internet gutxiago (%51,1) gainerako sektoreetan baino. Web orria enpresen %6,1ek du (sektore guztien batez bestekoan %49,9k) eta merkataritza elektronikoa %3,9k (idem %25,6k).

Erabilpen-portzentajeek baxu diraute tamaina txikiak (%85,2tan bi langile edo gutxiago) ekipamenduok eskuratzea zailtzen duelako.

1. Taula: Informazioaren teknologien magnitude nagusiak Euskal AEko establezimenduetan, jarduera-adarraren eta enplegu-geruzaren arabera (%) 2016

	Ordenagailu pertsonala	Posta elektronikoa	Internet	Sakelako telefonoa	Web orria	Salerosketa elektronikoa (1)
Establezimenduak, guztira						
Sektoreak, guztira	86,4	83,7	85,0	92,0	49,9	25,6
Lehen Sektorea	53,1	46,0	51,1	85,2	6,1	3,9
Nekazaritza	52,2	45,0	50,4	84,6	6,0	3,9
Arrantza	75,3	72,6	69,2	100,0	8,4	3,9
Industria	92,7	91,4	91,2	95,4	64,0	30,2
Eraikuntza	83,9	80,4	84,1	98,8	31,2	14,2
Zerbitzuak	87,7	85,2	86,1	91,0	53,4	27,9
10 langile edo gehiago						
Sektoreak, guztira	99,2	98,7	98,1	96,1	88,1	29,7
Lehen Sektorea	94,7	94,7	94,7	100,0	32,0	6,4
Industria	99,6	99,3	99,2	97,5	88,8	29,8
Eraikuntza	100,0	100,0	98,3	100,0	79,4	25,8
Zerbitzuak	99,0	98,4	97,7	95,2	89,5	30,4

(1) Merkataritza elektronikoko datuek 2015eko abendua dute erreferentziatzat

Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta. Lehen sektorea eta enpresak

Egoera oso bestelakoa da enpresen tamaina kontuan hartuz gero. 10 langile edo gehiagoko establezimenduetan IKTak gainerako sektoreetan bezalatsu. 10 langile edo gehiagokoetan, den-denek daukate telefono mugikorra, eta %94,7k ordenagailua, Internet, posta elektronikoa. Tamaina honetan ere portzentajeak asko jaisten dira web orriekin (%32,0) eta merkataritza elektronikorekin (%6,4).


Arrantza enpresek IKT ekipamendu gehiago dituzte nekazaritzakoek baino

Aipagarria da lehen sektoreko ehunekoak oso ezberdinak direla nekazaritzako enpresen eta arrantzakoen artean. Azken horiek askoz ere ehuneko handiagoak dituzte ekipamendutan. Datu horrek ez du inolako eraginik sektore osoan, arrantzakoak enpresen %3,6 baitira.

Nekazaritzako portzentajeak: %84,6 mugikorretan; %52,2 ordenagailuetan; %50,4 Interneten; %45,0 posta elektronikoan. Arrantzan: %100 mugikorretan; %75,3 ordenagailuetan; %69,2 Interneten; %72,6 posta elektronikoan. Web orria establezimenduen %6,0k nekazaritzan eta %8,4k arrantzan; merkataritza elektronikoa %3,9k bietan.

Nekazaritza sektorean basogintzak ditu ekipamendurik gehien, arrantzak bezalatsu edo gaineratik. Izan ere, basogintzan 10 langile eta gehiagoko enpresak ugariago dira.

1. grafikoa: IKT ekipamenduak dauzkaten lehen sektorearen establezimenduak, jarduera-sektoreen arabera. (%)



(1) Nekazaritzaren produkzioa abeltzaintzarenarekin eta laguntza-jarduerekin konbinatua
Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta. Lehen sektorea

Kontuan izan behar da alde horiek ez direla jardueragatik soilik gertatzen; ustiatzeen tamainak ere badu eragina. Nekazaritzako establezimendu ia guztiak 10 langile edo gutxiagokoak dira; arrantzakoetan tamaina ez da hain uniforme.

Internet dutenen artean %82,6k konexio finkoak eta %75,9k mugikorrak. Interneten ADSL lerroak (%62,6) nagusi konexio finkoetan, gainerako sektoreetan bezala. Ondoren, zuntz optikodun kablea (%16,4) eta beste konexio finkoak (%10,6). Konexio finkoetan

nabarmentzekoak Wimax bezalakoak, helmen handiagoko kablerik gabeko teknologiak landa-inguruetan; eta sateliteak arrantzan.

Konexio mugikorretan, %72,5 telefonoz eta %31,5 sarbide zabaldun modemaz.

2016an lehen sektoreko establezimenduen %68,9k egin du izapideren bat Internetez Administrazio Publikoarekin. Ehuneko hori %83,2 da 10 enplegatu edo gehiagoko establezimenduetan.

Ohar metodologikoa: Edizio honetatik aurrera Informazioaren gizartearen inkesta, lehen sektorea, bideratu da jarduera nagusia lehen sektorean duten establezimenduetara bakarrik, bazter utzita sekundariotzat dutenak edo besterik gabe nekazaritza-aktiboak dituztenak. Beraz, datuak ez dira alderagarriak.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Informazioaren gizartearen inkesta. Lehen sektorea gaiari buruzko prentsa-ohar gehiago